



GALINDOKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA 1215 ERREGE DEKRETURA EGOKITZEKO OBRAK

2. dokumentua Preskripzio Tekniko Partikularren Agiria

1. XEDEA

Preskripzio tekniko partikularren agiri honen xedea GALINDOKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA 1215 ERREGE DEKRETURA EGOKITZEKO OBRAK egiteko gida erabiliko diren baldintza teknikoak definitzea da.

2. DESKRIBAPEN OROKORRA

Uneotan, Galindoko HUAk ez ditu betetzen langileek lan-ekipamenduak erabiltzeko gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak ezartzen dituen uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua.

Egoera ikusita, Galindoko HUA exijitutako araudira egokitzeko beharrezko kudeaketak egiteko mandatua jaso zen.

Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzak egin ohi dituen lanekin zerikusirik ez duen egitekoa zenez, auditoria bat egitea erabaki zen egoera zein zen jakiteko. Auditoria horri esker, ez bat etortze zenbait detektatu ziren, eta egoera konpontzeko egin beharreko zuzenketak zeintzuk ziren zehaztu zen.

Behin egoera eta beharrezko zuzenketak ezagututa, laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatu zen proiektu bat idazteko. Lizitazioa sektore publikoko kontratuaren legea betez egiteko besteko zehaztasuna izan behar zuen idatzitako proiektuak.

Bada, proiektuan zehaztutako jarduketek hiru arlo hauek hartzen dituzte aintzat:

- Galdarak
- Elektrizitatea eta seinaleketak
- Dokumentu-kudeaketa

3. OBRAREN IRISMENA

3.1 OBRAREN IRISMENA

Kontratatu nahi den obraren irismena «GALINDOKO HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA 1215 ERREGE DEKRETURA EGOKITZEKO OBRAK» proiektuan definitutakoa da; eranskin gisa erantsi da.

3.1.1 KONTRAESANAK, OMISIOAK EDO HUTSEGITEAK DOKUMENTAZIOAN

Agirietan aipatu eta planoetan jaso gabe geratutakoa —edo alderantziz—, dokumentu guztietan jasota balego bezala exekutatu beharko da.

Proiektuaren planoen eta preskripzioen agirien artean kontraesanik badago, azken horietan jasotakoa nagusituko da.

Planoetan eta preskripzioen agirietan egindako omisioek edo xehetasunen deskribapen okerrekin, baldin eta planoetan eta preskripzioen agirietan jasotako obra gauzatzeko ezinbestekoak badira argi eta garbi, edo usadio-ohituragatik egin beharrekoak badira, ez dute inolaz ere salbuesten kontratista aipatu gabeko edo oker deskribatutako xehetasunak gauzatzeko betebeharretik; aitzitik, xehetasun guztiz eta behar bezala zehaztu balira bezala egin beharko dira.



3.1.2 XEHETASUNEZKO PLANO OSAGARRIAK

Proiektua eraikuntza-planoaren maila bitartean dago garatuta, baina kontratistaren erantzukizuna izango da behar beste xehetasunezko plano osagarri egitea, lanak behar bezala egiteko. Plano horiek gutxienez hamabost (15) laneguneko aurrerapenarekin aurkeztuko zaizkio obra-zuzendaritzari, onartzeko edo beharrezko iruzkinak egiteko. Salbuespena administrazio-klausula partikularren agirian jasotako mugarrietan adierazitakoa izango da, zeina berdin-berdin bete beharko baita.

3.2 OBRA-PLANA - PROGRAMAZIOA

Proiektuak barne hartzen duen plangintzak bat etorri beharko du HUAko ustiapen-beharrekin.

Kontratistak arrazoi operatiboak tarteko obra-zuzendaritzak ezarriko dizkion lan-ordutegiaren eta egunen betekizunak onartzen ditu inolako kontrapartida ekonomikorik gabe (ondorio hauetarako, egun baliodunak izango dira eguneko 24 orduak, urteko 365 urteetan).

3.3 LEGEZTATZEA

Kontratutakoak horrela behar izanez gero, kontratistak egin beharko ditu instalazioak legeztatze behar diren lan eta izapide tekniko-administratibo guztiak (eskaerak, proiektuak idatzi eta ikus-onestea, ikuskapen ofizialak, etab.). Kontratistaren kontura izango dira baimendutako kontrol-erakundeak egin beharreko saiakuntza, egiaztapen, proba, ikuskapen eta abarrek eragindako gastu guztiak, haiek egiteko behar diren elementuak barne, eta kontratistak, lanak amaitzean, sortutako dokumentazio guztia kontratu-arduradunari emango dio.

3.4 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA TXOSTENAK

Prozesua efizientziaz egiten dela ziurtatzeko, informazioaren berri izan behar da, eta informazioa eguneratua izan; gainera, hura dokumentatu, erregistratu eta artxibatu behar da.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-arduradunak onartu arte.

3.4.1 INFORMAZIOA

BBUPek kontratistaren esku jarriko du bere esku dagoen dokumentazio guztia, kontratua erraz garatzeko.

Kontratistak konpromisoa hartzen du kontratua garatzeko BBUPetik lortutako informazioa isilpean gordetzeko, eta, bereziki, erabilitako teknologiarik, iturburu-programei, prozedurei, software industrialari, plano eta eskemei, zehaztapenei, jarraibideei eta abarri dagokienez. Horiek guztiak inolako aldaketarik egin gabe itzuliko zaizkio BBUPi.

3.4.1.1 INFORMAZIOA EGUNERATZEA

Tartean dagoen dokumentazio guztia eguneratu behar da.

3.4.2 DOKUMENTAZIO PARTIKULARRA

Kontratistak dokumentu hauek entregatu beharko ditu gutxienez:

- Egindako Obren Proiektua, «LAN-INSTRUKZIOA: EGINDAKO OBREN PROIEKTUA IDAZTEKO BBUP-EN GIDALIBURUA. IT(PE-SGC-01) 03-» dokumentuan exijitutako ezaugarriak izan behar dituenak.
- Hondakinak birziklatzeko eta kudeatzaile baimendunaren bitartez kudeatzeko (homologatuta) dagokion dokumentazioa.

Kontratua ez da amaituko, harik eta eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu eta kontratu-zuzendaritzak onartu arte.

3.4.3 KONTRATISTAK AURKEZTU BEHARREKO TXOSTENAK

Funtsezkoa da BBUPek bere produkzio-jarduerari eusteko egiten den ahalegina ezaugarritzea eta kuantifikatzea. Horretarako, eta mantentze-lanak etengabe hobetzeko oinarri gisa, beharrezkoa da informazioa izatea, eta, ondorioz, Kontratistak txosten hauek aurkeztu beharko ditu:



3.4.3.1 HILEKO TXOSTENA

Hilero, kontratistak HILEKO TXOSTENA egingo du. Hona hauek izango ditu txostenak:

- Egindako lanen banakapena, aurreikusitako plangintza zein mailatan bete den adierazita.
- Unitateen eta egindako lanen ZERREDA BALORATUA (neurketen eta kontratuaren aurrekontuaren arabera), ziurtagiria emateko oinarria izango dena.
- Kontratu-aurrekontuaren jarraipena.

4. GIZA BALIABIDEAK ETA BALIABIDE MATERIALAK

Kontratistaren antolamendu-egiturak behar beste baliabide izango ditu kontratua behar bezala kudeatzeko (giza baliabideak eta baliabide materialak), eta BBUPi lanak egiaztatzen eta emaitzak kontrolatzen laguntzeko.

Kontratistak, gutxienez, bere kontura eduki beharko ditu ondoren zehazten diren giza baliabideak eta baliabide materialak, eta haien kostua bere gain hartuko du kontratuaren guztizko zenbateko ekonomikoaren barruan.

4.1 GIZA BALIABIDEAK

Giza baliabide espezializatuak, kopuru eta kualifikazio nahikoarekin, kontratua kontratu-baldintzetan betetzen dela bermatzeko.

AKPAren KAUDIMEN TEKNIKOA atalean, kontratua gauzatzeko aldian nahitaez atxikita egon behar diren langileak zehaztuko dira.

BBUPen instalazioetan lan egiten duten langile guztiek lanok egiteko behar den konpetentzia profesionala eta prestakuntza-maila izango dute, eta kontratistaren erantzukizuna izango da bere ekipoak kontratatutako zerbitzuen xedera egokitzea.

Langile guztiek portaera egokia izan beharko dute, behar bezala unformatuta, txukun eta behar bezala identifikatuta egon behar dute une oro —identifikazio-txartel pertsonala ageriko leku batean eramango dute—.

BBUPek beretzat gordetzen du langileak ordeztatzeko eskubidea, baldin eta langileak ez badatoz bat lehen aipatutako eskakizunekin, edo ez badute agindutako lanerako behar besteko gaitasunik eta trebetasunik erakusten, kontratu-zuzendaritzaren iritziz.

4.2 BALIABIDE MATERIALAK

- Kontratu honen xede diren lanak behar bezala egiteko beharrezkoak diren erremintak, makinak, eta era guztietako ibilgailuak, norbera eta taldea babesteko ekipamenduak eta beste.
- Lantegiak, bulego-lokalak eta aldagela propioak edo alokatuak, kontratua betetzeko behar diren giza baliabideen kopuruarekin bat datozenak (BBUPek ez du lokalik emango langileen bulego, aldagela, komun eta abarretarako, ezta erremintak, makinak eta ibilgailuak gordetzeko ere, eta kontratistaren kontura izango dira arrazoi horienatik sortzen diren gastu guztiak).

Lanen iraupenaren arabera, oro har eta instalazioan toki nahikorik badago, kontratistak bere kontura, eta kontratu-zuzendaritzaren nahitaezko onespeneren ostean, instalatuko ditu kontratatutako lanak normaltasunez egiteko behar diren etxolak, higiene-zerbitzuak, biltegiak eta bilketak. Kontratista izango da eremu horietan ordena eta garbitasuna mantentzeko arduradun bakarra. Eremu horiek egunero txukundu beharko dituzte lanaldia amaitzean. BBUPek eskubidea izango du, zabarkeriarik antzemanez gero, eremu horiek hirugarren bat kontratatuta egiteko, eta kontratistaren kontura joango da zerbitzuaren kostua.

Kontratistaren kontura joango dira honako lan hauek eragindako gastuak: lursaila egokitzea; instalazioak ezartzea, kentzea eta lekuz aldatzea; obra osagarriak eraistea, eta okupatutako azalerak egokitu eta garbitzea jatorrizko itxura berreskuratzea. Lan horiek kontratu-zuzendaritzaren adostasuna lortu beharko dute kontratua bukatutzat jo dadin.

Kontratistaren ibilgailuak BBUPen instalazioetan aparkatzeko, betiere horretarako lekua badago, kontratu-zuzendaritzak baimendu beharko du, eta kontratistako langileak instalazioan dauden bitartean baino ez da baimenduta egongo.



BBUPek ez du bere gain hartzen kontratistaren baliabide materialek izandako lapurreten edo kalteen erantzukizunik. Horrenbestez, egokitzat jotzen dituen neurriak hartu beharko ditu lanak amaitu arte ekipoen segurtasuna bermatzeko.

4.2.1 HORNIDURAK

Kontratua behar bezala gauzatzeko behar diren hornidura, erregai, komunikazio eta abar guztiak kontratistaren kontura izango dira.

Oro har eta kontratu-zuzendaritzak berariazko baimenik eman ezean, kontratistak ezin izango ditu erabili BBUPen instalazioetako energia-iturriak (elektrikoa barne). Horrenbestez, bere bitartekoak erabiliz sortuko du (behar den legezko dokumentazioa edukita) kontratatutako lanak exekutatzeke behar duen energia elektrikoa.

Ura hartzeko aukera izango du zehazten zaion tokian, eta saneamendu-sareko lotunea ere izango du (beharrezkoa bada); kontratistaren erantzukizuna izango da languneraino edo langunetiko uraren banaketa-eta saneamendu-sarea. Biak eginda geratu behar dira indarreko erregelamenduekin eta segurtasunaren arloko arauekin bat etorritik, eta kontratu-zuzendaritzaren onespenezekin.

4.2.2 BITARTEKO OSAGARRIAK

Kontratistak kontratuaren irismenean jasotako lan guztiak egiteko behar diren bitarteko osagarriak, aldamioak, garabiak, plataformak, ekipo elektrogenoak eta abar hornitzeko betebeharra du.

Bitarteko osagarrien, aldamioen, garabien, plataformen, ekipo elektrogenoen eta abarren prezioak modu proportzionalen jasotzen dira unitateko prezioetan, eta, ondorioz, ez dira bereizita ordainduko.

5. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratistak administrazio-baldintza partikularren agirian zehaztutakoa bete beharko du.

6. KONTRATUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Kontratua agiri honetan adierazitako baldintzak betez egingo da, kontratistaren erantzukizunpean.

Kontratistak kontratuaren xede diren jarduera guztietan aplikatu beharreko legeria, erregelamenduak eta legezko araudia bete beharko ditu, baita BBUPek ezarritako prozedurak ere.

Jarduteko moduari buruzko edozein zalantza izanez gero, kontratistak kontratu-zuzendaritzara joko du, informazioa biltzeko.

6.1 KONTRATUAREN HASIERA ETA AMAIERA

Erabat debekatuta dago BBUPeko instalazioetan inolako jarduerarik hasia Kontratuaren Zuzendaritzaren berariazko baimenik gabe.

Kontratuaren indarraldia igarotakoan amaituko da kontratua.

6.2 PROZEDURAK

Kontratistak bere kontura eta bere bitartekoak erabiliz eramango ditu BBUPen instalazioetara kontratuaren xede diren lan guztiak egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak.

Ostegunero, beste obra batzuekin edo instalazioaren ohiko jarduerarekin eta mantentze-lanekin interferentziak saihesteko xedez, kontratistak hurrengo asterako aurreikusitako lanen plangintza egingo du, obra-zuzendaritzara bidali beharko duena onartu dezan.

Kontratistak onartu egingo ditu obra-zuzendaritzak gorabeherak, akatsak, matxurak, urgentzia- eta/edo larrialdi-egoerak eta beste jakinarazteko ezarritako prozedurak.



6.3 LANEN KOORDINAZIOA

Kontratistari dagokio agiri honen xede diren lanak eta zerbitzu osagarriak ematen dituzten enpresenak koordinatzea.

BBUPek kontratatzen dituen enpresek zerbitzuak era sinergikoan eta koordinatuan ematea sustatu eta erraztuko du.

Kontratistaren lanak prozesuko lana edo aldi berean egiten diren «bestelako» lanak oztopatzen dituenean, kontratu-zuzendaritzak horretarako baimena ematen duenean baino ez dira hasiko lanak egiten.

6.4 KONTRATUAREN JARRAIPENA ETA KONTROLA

Kontratu-zuzendaritza kontratu-arduradun baten esku egongo da (BBUPeko plantillako ingeniaria). Arduradun horrek teknikari arduradun baten laguntza (BBUPeko langilea) eta/edo kanpoko laguntza teknikoa izango du. Langile hori arduratuko da kontratua betetzeko zuzendaritza-, jarraipen- eta kontrol-lanez.

Kontratu-zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen kontrol-neurriak ezarri ahal izango ditu kontratuaren kondizioak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko, eta egindako lanen maila teknikoa egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen ausazko ikuskapen guztiak egingo ditu.

Kontratu-zuzendaritzak eskatzen duenean, enpresa kontratistako teknikariek presente egon beharko dute lan garrantzitsuak egiten diren bitartean.

6.5 LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA

Kontratuari lotutako prebentzio-jarduera guztiak ENPRESA-JARDUERAK KOORDINATZEKO BERARIAZKO PROZEDURAK (PE-SST-20) arautuko ditu; eranskin gisa erantsi da.

6.6 INGURUMENA

Lanak egiteaz arduratzen diren langileek ingurumenari buruz aplikatu beharreko legeria, araudi eta erregelamendu osoa beteko dute une oro.

Kontratistari dagokio ingurumenaren arloko jarduerak antolatzea, bai berarenak, bai azpikontratatzten dituen enpresenak.

Kontratistak jarraian zehazten diren BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzaren baldintza guztiak bete beharko ditu, eta, behar izanez gero, horiek betetzen direla erakusten duten ebidentziak eman.

Ingurumenarekin lotutako jarduera guztiak BBUPeko Iraunkortasun, Teknologia eta Berrikuntzako Zuzendariordetzak baliozkotu beharko ditu.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.6.1 KONTRATISTENTZAKO INGURUMEN BETEKIZUNAK

Adjudikaziodunak agiri honen betekizunak betetzea hitzematen du, bai eta haiek bete izanaren frogak ematea ere, behar izanez gero.

- Adjudikaziodunak lanak egiten ari diren bitartean ingurumen-inpaktu negatiboak (isurketak, emisioak, zaratak, usainak, etab.) ez sortzeko beharrezkoak diren prebentzio-neurri guztiak aplikatuko ditu.
- Adjudikaziodunak lanak egitean baliabide naturalak (energia, ura, etab.) zentzuz erabiltzen direla zainduko du.
- Erregaiak edota bestelako substantzia arriskutsuak baldintza hauetan biltegitratuko dira:
 - Teilatupean eta eremu zolatuan. Halaber, kubeta edo biltzeko sistema egokiak izan beharko dira, izan litezkeen isuriak kanpora irtetea eragozteko. Euste-sistema horiek garbiketa- eta mantentze-egoera egokian mantenduko dira.
 - Ontzi bakoitza behar bezala identifikatuta egongo da, eta, biltegitratzeko tokietan, produktu biltegitratuen Segurtasun Datuen Fitxak jarriko dira.



- Produktu kimikoak biltegitratzeari buruzko legeria beteko da, biltegitratzeko kantitateei eta bateraezintasunei dagokienez.
- Erabat debekatuta dago substantzia arriskutsuak zolatu gabeko eremuetan pilatzea.
- Ezin dira substantzia arriskutsuak (disolbatzailea, pintura, olioak, etab.) saneamendu-sarera isuri. Adjudikaziodunari leporatzeko moduko isuririk detektatuz gero, hura tratatzearen ondoriozko gastuak egotziko zaizkio.
- Ekipoek eta makinek ingurumen-arloan zaratari eta emisioei dagokienez ezarritako legeria beteko dute. CE markari buruzko dokumentazioa eta argibideen eta mantentze-lanen liburua eskuragarri egongo dira makinan bertan edo adjudikaziodunaren etxolan.
- Debekatuta dago ibilgailuak eta makineria mantentzeko eta konpontzeko lanak egitea BBUPen instalazioetan, kontratu-zuzendariaren berariazko baimena izan ezean.
- Adjudikaziodunak kontratatutako lanekin lotutako larrialdi-egoerei aurre egiteko behar diren kontingentzia-baliabideak izango ditu, suteen aurkako beharrezko sistemak barne.
- Ingurumen-gorabeherarik edo -istripurik gertatuz gero, adjudikaziodunak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio gorabehera Kontratuaren zuzendariari. Gorabeherari buruzko txosten idatzia (arrazoiak eta hartutako ekintza zuzentzaileak) eskatu ahal izango dio adjudikaziodunari.
- BBUPek beretzat gordetzen du ingurumen-betebeharrek ez betetzeagatik sortzen diren ekintzak eta gastuak adjudikaziodunari jasanarazteko eskubidea.

Betekizun orokor horiek betekizun bereziekin osatuko dira, eta, kontraesanik egonez gero, betekizun orokorren gainetik egongo dira.

6.6.2 GARBIKETA ETA HONDAKINAK

Kontratistak garbiketa-egoera onargarrian eduki beharko ditu kontratu honen xede diren lanak egiteko sartzen den instalazioak eta esparruak.

Kontratistaren ardura da bere lanak egin bitartean sortutako hondakin guztiak kudeatzea, eta berariaz debekatuta dago era guztietako hondakinak BBUPen instalazioetan ezabatzea edo biltzea. Hondakinak indarreko legeria aplikagarriaren arabera kudeatuko dira, eta BBUPen eskura egongo dira hondakinak behar bezala kudeatzen direla frogatzen duten egiaztagiriak.

Aipatutako betekizunaren bat betetzen ez bada, kontratu-arduradunak hirugarren bati emango dio betebehar horiek egiteko ardura. Sortutako gastuak dagokion ziurtagiritik deskontatuko zaizkio kontratistari.

6.7 KALITATEA ZIURTATZEA

Lizitatzailleak bere erakundeak kontratuaren baldintzak betetzeko gaitasuna duela ziurtatuko du.

Gaitasun hori ISO 9001 2008 ziurtagiriarekin edo goragoko beste batekin bermatuko da.

Ziurtagiririk izan ezean, BBUPek egokitzen jotzen dituen kontrolak onartuko ditu lizitatzailleak, eta haien kostua bere gain hartuko du.

Betebehar horiek kontratu-izaera izango dute.

6.8 BERMEA

Kontratistak administrazio-baldintza partikularren agirian zehaztutakoa bete beharko du.

6.9 ZIURTAGIRIAK

Hilero, entregatutako ZERRENDA BALORATUAN oinarritutako ziurtagiria egingo du kontratistak, egindako lanei dagokienez.

Ziurtagiri partzialak behin-behinekoak baino ez dira izango, eta ez dakarte haien barruan jasotako lanak onartzea.

Amaitu gabe, partzialki amaituta edo gaizki egindako lanek hasierako prezioaren gaineko murrizketa proportzionala ekarriko dute.



Alderdiek eztabaidatu eta onartu beharko dituzte prezio kontrajarriak, gauzatu aurretik.

Kontratu-zuzendaritzak aldez aurretik onartu ez dituen lan gehigarriak edo aurreikusitakoetan egindako aldaketak ez dira ordainduko.

7. LIZITATZAILEAK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO TEKNIKOA (B GUTUN-AZALA)

Aurkeztu beharreko «dokumentazio teknikoa» AKPAren dagokion atalean zehaztutakoa da.

Sestao, 2025eko abuztuak 18

José Ignacio Pérez Domínguez
Mantentze Sailaren burua